



177. zenbakia

· URRIA 2018 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia,
Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun,
Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu,
Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier,
Facebooken parte hartzen duzuenoi,
etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan

KOORDINATZAILEAK

Lur Gil eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZIA

Aingeruiturriko erreka, Odieta. Errekaren
hondoan sortzen diren iturburuek, ur
karbonatuan aberatsak, trabertino-
motako harkaitz moduko bat sortzen
dute, dentsitate maila txikikoa eta
porotsua; Bertan algak, goroldioak eta
bestelako organismo batzuk biltzen dira
eta bainuontzi txiki batzuk eratzen dira.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urriaren 2 an bidalia

Olerkia



Eguna berantz doa

“

*Neurekin gel zaite ariats-begi da-ta:
itzal baten goxoz urdintzen da Jata.*

Ene Josu maite,

gel zaite!

*Neure egun argia berantz azkar doa,
itzalak jotzen dau atadi ondoa.*

Ariats onen otza,

biotza!

*Oi Bidañti Deuna, sar zaite neureira,
bertan dozu bada maitasun arrera.*

Bekidat bizitza

zeure itza.

*Idañti Doneak atzaldur daidazuz,
euren muin eztiak emon egistazuz.*

Bel zeure mintzoa,

goxoa!

*Ta barne gustia berotan dodala
argi biur bekit eriotz itzala.*

Dana yat atsegin

Zeurekin.

*Orain sakon dakust zeure eriotz oii;
zegaitik daukozun biotz deuna gori.*

Ene Josu maite,


gel zaite!

”



Lauaxeta, 1937

Gasteizko espetxean



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

The background is a dark navy blue. It is decorated with numerous small, colorful circles in shades of pink, orange, teal, and lime green, scattered across the top half. The bottom half features large, dark grey, wavy, organic shapes that resemble stylized waves or smoke, also interspersed with the colorful dots.

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



IZEN-EMATEA

www.euskaraldia.eus



Zenbait erronkarekin dator 2018

Larraitzarko ikastetxean zuzendaritza berriarekin ekin diote ikasturteari

Larraitzarko ikastetxean zuzendaritza berriarekin ekin diote ikasturteari, eta 307 ume izango dituzte.

Jauntsarasko Ohianzabal eskolan, bestalde, 79 hurrek hasi dute. Patxi Morenok, Larraitzarko zuzendari berriak, gurasoen elkarrekin harreman estua izan nahi du. Ohianzabalgo zuzendari Kepa Mateorenarendako, erronka nagusia Haur Hezkuntzako hirugarren kurtsoa umeak eta Lehen Hezkuntzakoak gela berean egotean datza.

Ikasturte berriaren erronkak

Ohianzabalen Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan 6 ume besterik ez dago, eta, horregatik, Haur Hezkuntzako hirugarren mailakoekin batera ikasiko dute aurten. Horrela, guztira, 13 bilduko dira gelan. LHkoekin egonda, oraindik 5 urte dituzten HHkoei gehiegi ez eskatzea da Mateorenaren kezka.

“Lehen aldiz erlijio katolikoa ez den beste bat aukeratu daiteke Larraitzarren. Aurten ez da talderik osatu, hala ere.”

Edonola ere, euren proiektuarekin jarraituko dute Ohianzabalen. Eskola aktiboa eta parte-hartzailea izan nahi dute, eta horretarako ate-irekiak metodologia ezarri dute Haur Hezkuntzan eta erabat formala ez dena erabiltzen dute Lehen Hezkuntzan.

Zertan datza ate-irekiak metodologia honek? Denbora jakin batean, adin guztiak batera daude espazio berean, eta proposamen ezberdinak daude hainbat txokotan, ikasleek erabakitzen dute zer txokora jo nahi duten eta zenbat denbora egon nahi duten bakoitzean. Gainera, bikote pedagogikoak sortu dituzte, umeekin bi irakasle egoten dira behaketa egiteko.

Bitartean, Lehen Hezkuntzan ez dute testu liburuekin erabat funtzionatzen, ikas-komunitateko praktikak eta proiektu



Futbol zelaia jokoz bete zen Larraitzarren

ezberdinak tartekatzen dituzte eta pedagogia aktiboak aurrera eramaten saiatzen dira.

Proiektu pedagogiko hauek finkatzearekin batera, besteak beste, genero ikuspegia eta emozioen lanketa dute erronka datozen urteotan.

Bestalde, ordutegi jarraiaren eztabaida ixtea dute helburu ikasturte berri honetan. Batzordeak proposamena egingo du eta gurasoek erabakiko dute, ziur aski, bozketaren bidez.

Larraitzarren, zuzendaritza berria

Larraitzarko Ikastetxean, Beatriz Irurueta zuzendari ohia ikasketa burua izatera pasa da, eta Patxi Morenok ordezkatu du zuzendari lanetan. Morenoren nahi nagusia gurasoen elkarrekin harreman estua izaten jarraitzea da.

Berrikuntzen artean, gainera, ikasturte honetan lehenengo aldiz eman da aukera erlijio katolikoa ez den beste erlijioen bat ikasteko. Orain arte, Balio sozial eta zibikoak edo erlijio katolikoa irakasgaien artean aukeratu behar zuten ikasleek. Orain, horietaz gain, erlijio judua, ebanjelikoa edo islamikoaren artean ere aukeratzeko ahal dute. Hala ere, taldea osatzeko gutxienez 10 ikasle egin behar dute eskaera, eta aurten inork ez du izena eman.

Jostatzen ekin diote ikasturte berriari

Pasa den irailaren 7an izan da ikasturteko lehenengo eguna eta bai Larraitzarren, baita Ohianzabalen jokoen bidez hasi zuten. Jauntsaratsen, Ohianzabal eskolan, trikitixaren musikak alaitu zituen jolasak. Dantzan eta jostatzen eman zuten goiza, irakasle eta ikasle berriek elkar ezagutzeko aukera paregabea.

2018-2019ko ikasturtea



▲ Zaku lasterketan lehia handia izan zen Ohianzabalen

Jokoen artean, arrantza ere zegoen aukeran ▼

Antzera aritu ziren Larraintzarren, bertan Gurasoen Elkarrekin antolatutako ikasturte hasierako jaia. “Orain arte ikasturte amaierakoa egiten genuen, baina kurtso bukaeran jendea nekatuta dago, gero eta gutxiagok ematen zuten izena bazkarian, eta ilusioa behera egin duela ikusten genuen”, azaltzen digu Maite Oizek, gurasoen elkartearen kideak. Horregatik, aldatzea erabaki dute, eta amaierakoa, ikasturte hasierako jaiarekin ordezkatu dute. “Lehen eskolaz kanpoko ekintzen modurako jarduerak antolatzen genituen, judo adibidez; gaurkoan, ordea, bestelakoak prestatu ditugu: aurpegia margotzeko txokoa, globoflexia, herri kirolak, dantza tailerra, gimkanak, eta horrelakoak”, dio Oizek.

Maite Oizekin batera, Edurne Barberena, Ester Burgete, Ana Latasa, Sonia Legazkue, Maria Lizaso eta Marijo Pascual egon ziren, Gurasoen Elkartearen kideak.



Familiek, batzaz beste, 300 euro gastatu dituztela kalkulatu da

Horrela dio CIES inkestak, aurreko urtean baino ia 70 euro gutxiago. Gurasoen elkartearen kideei galdetuta, ordea, ez Lehen Hezkuntzan, ez Bigarren Hezkuntzan, ez dute aurrezte hori nabaritu; aurreko urteekin konparatuta nahiko berdintsu ibili direla diote. Aldi berean, estudio honen arabera, ezberdintasun handiak daude familien artean. Ikerketaren arabera, familien ia %20k 400 eta 600 euro bitarte gastatuko dituzte, eta badago 600etik gora ordainduko dituenak ere, %9.



Beuntzako Ostatua esku berrietan

Kike Galarza Zelaia bakaikurrak hartu du, eta bi hilabete eta erdi daramatzala, oso pozik dago harrerarekin. “hainbat ostatu bisitatu nituen hona etorri baino lehen, lan gehiago emango zidatenak ziur aski, baina Beuntzan eman zidaten harrerarekin, hau nire lekua dela argi ikusi nuen”. Batez ere bere bost txakurrei egin zieten harrerak konbentzitu zuen, “bizilagun batek etxetxo bat eta guzti ekarri zidan txakurrentzat”. Galarza animalien maitalea da, kalean utzitako asko hartu ditu zaintzeko, eta bostekin geratzea betebeharreko baldintza zen.

Bakaikurrak Lizarrustin lan egin du urte askotan bere ahizparekin, baina mugatua ikusten zuen bere burua bertan, diputazioaren baimena behar baitzuen aurrera eraman nahi zuen edozein proiektu. Beuntzan, han egin izan ez zituen asko jarri nahi ditu martxan, baina lehenago ostatua ongi doala ziurtatu nahi du. “Gero alokatzeko apartamentua egin nahi dut goiko solairuan, dagoeneko baimena eskuratu dut; aurrerago proiektu gehiago dauzkat buruan, baina pausoz pauso”.



Kike Galarza Zelaia ▲

Ultzama-Anue-Lantz

Gure sare elektrikoan hobekuntzak

Azkeneko zenbakian Iberdrolak gure alderdian aurrera eraman duen hobekuntzaren berri eman genuen: Imotz eta Atezko sareak lotzea.

Oraingoan, beste bi sare lotzen ari direla azaldu nahi dizuegu: Ultzamako sarea Lantz eta Anuekoarekin lotzen ari dira.

Bollongo benta deritzan hurbilean Ultzamako sarea bukatzen zen eta orain mutur hori Anuetik Lantza doan elektrizitate kablearekin lotzekotan dira, Lantzko hurbilean.



▲ Lantzko udaletxea hemen, Juntazarnea deritzan etxe bikainean.

Bai Ultzamak, batez ere Alkotz eta Arraizko herriak, eta bai Anue eta Lantzek sumatuko dute hobetze hau, edozein matxura izanda ere, alde

batetik ez bada, bestetik izanen baitute argi-indarra.

Eta ikasidugunez, Basaburuko eta Larraungo sareak ere lotzekotan omendira.

Gaurko egunean, hainbeste etxe-tresna elektriko, makina edo ordenagailu ditugunean, argi-indarrak gabe gelditzea katastrofe txiki bat bihurtzen zaigu. Honekin guztiarekin, konponduxeak geldituko dira gure amets gaiztoak.

Eta noizko internet zerbitzu on bat? Gero eta jende gehiago baitugu internetez lanean ari dena, batzuk eskualdeko enpresetan eta beste batzuk beren etxeetan. Behar horri hola edo hala ekin beharko genioke! Ea eskualdeko udalek denek batean zerbait erdiesten duten!

Hitzak

Zenbakia: numeroa.
Hobekuntza: mejora.
Matxura: averia.
Etxe-tresnak: electrodomésticos.
Ordenagailua: ordenadorea.
Eskualdea: comarca.
Erdietsi: konsegitu.

De Rerum Natura



@zaldieroX

Euskaraldian izena emateko epea zabalik da

Dagoeneko zabalik da euskaraldian izena emateko epea, hurrengo helbide honetan: <http://izenematea.euskaraldia.eus/> Aukeratu zure rola, eta gainean klikatuz izena emateko fitxa agertuko zaizu. Fitxa bete eta “erregistratu” sakatu. Ongi egin baduzu, mezu bat ailegatuko zaizu behar bezala erregistratu dela esateko eta azalpen batzuk emateko.

“Ez da izen emate soil bat, norbanakoak hartu behar du benetan konpromisoa, ez zaigu interesatzen pertsona asko lortzea, baizik eta izena ematen duenak benetan konpromisoa izatea”, azpimarratu du Ester Lakastak, Basaburuko alkateak.

Irailaren 20an ireki zen epea, eta ekitaldi berezia egin zuten Iruñeko Zentral

aretoan. Hilabeteak daramatzate herrialde bakoitzean Euskaraldia prestatzen, eta Zentraleko topaketan errepasoa egin zuten eta azken fase honetako erronkak azaleratu zituzten. Bertan egon ziren gure eskualdeko hainbat ordezkari.

Dakizuen bezala, azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean izango da Euskaraldia. Bertan aho bizigisa edo belarriprest gisa parte hartu daiteke, euskaraz hitz egiteko edota soilik ulertzeko gai garen aztertu eta rola aukeratu behar da.



Irailaren 20an zabaldu zuten izena emateko epea, ekitaldia egin zuten Iruñeko Zentral aretoan ▲

Gemma Sanginèsek, TELP tailerren sortzaileetarikoa, ikastaroa eskaini zuen Jauntsaratsen

Euskaraldiaren baitan TELP tailerra antolatu zuten Jauntsarasko Apeztegiberriko Ganbaran irailaren 21ean eta 22an. TELP, Taller d’Espai Linguistic Personal hitzetatik dator, eta helburua, hizkuntza gutxituen hiztunek gatazkak bideratzeko tresna psikologikoa izatea. 2003an sortu zen País Valèncian, besteak beste, Gemma Sanginès psikologoaren eskutik. Baina 2006an zabaldu zen Euskal Herrian.

Gemma Sanginèsek berak eman zuen tailerra Jauntsaratsen eta honela azaldu

digu: “hizkuntza kontzientzia dutenei zuzendua da, euren hizkuntza mantentzean erosoago sentitu daitezen baita helburua. Askotan ez digutela ulertuko pentsatzen dugu, edota, horrela bada, gure hizkuntzan aritzea edukazio txarrekoa izango dela”. Tailer hauetan, hiztun gutxituei hori zergatik gertatzen zaien azaltzen da, eta hori aldatzeko estrategia psikologikoak eta



▲ Gemma Sanginès

irtenbideak eskaintzen dira: “gatazka hauek ez dituzte hizkuntza “txikiko” hiztunei gertatzen, baizik eta hizkuntza gutxitukoei. Danimarkan 5 milioi hiztun daude, munduko beste hiztunekin konparatuta gutxi dira, baina ez dira gutxituak sentitzen, hizkuntza hegemonikoa da haien herrialdean. Kurdua hitz egiten dutenak 35.000 dira, baina ez daukate herrialde propio bat, gutxituak daude. Hizkuntza dominante batekin kontaktuan dauden hizkuntzak dira, hizkuntza gutxituak”. Interbentzioa hiru mailatan egiten dute: psikologikoan, ez ahozkoan eta ahozkoan. “Hizkuntza sumisoaren jokabideak zeintzuk diren aztertzen ditugu, mendekotasunaren ondorioak, eta horri aurre egiteko entrenatzen gara. Besteak beste, modu sumisoan edo agresiboan jokatu beharrean, modu goxoan eta lasaian hitz egiteko praktikatzen dugu, baina ozen eta zuzen, hiztun normalak izango bagina bezala, nahiz eta jakin gure egoera oraindik ez dela normala”.



Cristina Altuna Ochotorena ultzamarrak Nafarroako Parlamentuko eserlekua utzi du



▲ Cristina Altuna Ochotorena Nafarroako Parlamentuan

UPNko parlamentariak bere eserlekua utzi du eta beste ibilbide profesional bati ekingo dio. Tafallako UPNko zinegotzia den Francisco Irizar Jáuregui hartuko du bere lekua Nafarroako Parlamentuan. Altunak 34 urte beteko ditu hilabete honetan; Filologia Hispanikoa eta Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen, eta hainbat komunikabidetan kazetaritza lanak egin ditu parlamentariaizanaurretik.

Irakurle taldea abiaraziko dute berriz Ultzamako liburutegian

2017ko otsailean sortu zen, eta ikasturte berri honetan berriz jarriko dute martxan. Hilaren lehendabiziko asteazkenean biltzen ziren orain arte, baina aurtengo eguna zehazteke dago. Hori bai, arratsalde izango da, liburutegian bertan. Momentuz 10 bat lagun dira, baina nahi duena animatzen dute haiekin bat egitera, 20 bat lagunendako pentsatua baitago taldea. Dohainik da eta liburutegiak liburuak maileguan utziko die parte-hartzaileei. Udan irakurri dituzten liburuak komentatzen hasi dira: “El antropólogo inocente” (Nigel Barley) eta “La verdad sobre el caso Harry Quebert” (Jöel Dicker). Eta, gero, bi komikiren irakurketari ekin diote: “Arrugas” (Paco Roca) eta “Pildoras azules” (Frederic Peters). Denetarik irakurtzen dute, beraz; baina oso ezagunak ez direnak irakurtzen saiatzen dira.

Izena emateko: biblioultzama@yahoo.es



C Rosenfelden argazkia (flickr) ▲

Aranzadi Zientzia Elkartek Oiasso-Tarraco erromatar galtzada ikertzen ari da

Aranzadi Elkartek irailaren 8an ekin dio zundaketa lanei, inguruko bizilagunek lagunduta. Auzolanean, Belateko bideko merenderotik abiatu ziren.

Iruña-Pamplona eta Oiasso-Irun elkartu omen zituen galtzada honek. Elkartearen susmoen arabera, Belate zeharkatzen zuen eta bertan zundaketa arkeologiko batzuk egin nahi dituzte “Bentaxar” inguruan. Zundaketak eskuz egiten dira, laguntza mekanikoarekin, metro bateko zabalerarekin eta zarpiko luzera duen zanga batzuk egiten dira luraren estratigrafia aztertzeko eta ondoren atera den lur berarekin estaltzen da lurzorua lehen zegoen bezala uzteko.



Aranzadi Zientzia Elkartek Oiasso-Tarraco erromatar galtzada ikertzen ari da ▲

Coworkinga gertuago dago Ultzaman

Udalak onartu du partekatutako lan espazio hau arautzen duen ordenantza. Behin-behineko onarpena da, oraindik publikoki ikusgai baitago, biztanleek alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, baina horrelakorik ez balego, behin betiko onarpenarekin aurrera egingo du proiektuak.

Coworkinga, ogibide ezberdineko langileek partekatzen duten bulegoei deitzen zaie. Batez ere autonomoendako pentsatuta dago, internet, argindarra, materiala partekatzean, hainbat gastu aurrezteko. Ultzamako udalak horrelako espazio bat sortu nahi du udaletxean hutsik duen hegoaldeko hegaleko bigarren solairuan. Guztira, 98m² ditu: 28m²-ko bi bulego, 15m²-ko bilera-gela bat, 4,5m²-ko komuna, eta 9m²-ko beste gune bat.

Partekatutako lan espazio hau erabiltzeko 50 euro hilean ordaindu beharko da, argindarra, garbiketa eta mantentzea barne; kontratua 6 hilabetekoa da, eta gehienez 4 urtez hartzen ahal da maileguan. Hala ere, beste eskakizunik egongo ez balitz, badago aukera 4 urte pasa eta gero ere kontratua berritzeko. Ordenantza osorik ikusten ahal da ultzama.eus, udalako webgunean.



Ultzamako udaletxea ▲

Muskitzek 5 lantegi eskaintzen ditu alokairuan

Artista, artisautzan edo antzeko lanetarako behar luketen autonomoendako zuzenduak dira. Imozko Udalaren esku daude, Itsasonea etxeko zaharberritutako goiko aldean kokaturik. Bik 17 m² dituzte, beste batek 29 eta beste biak 35 eta 37; guztiek ura eta internet sarea dute. Bulegoez eta komunaz gain, 124m²-ko eremu bat ere badu eraikinak, erakustaldiak egiteko aproposa, eta lantegiak alokatzen dituztenek erabiltzen ahal dute. Tamainaren arabera, 100 euroko edo 150 euroko prezioa dute hilean, eta urtebeteko kontratua eskaintzen da, 5 urtez luzatu daitekeena.

Internet, argindarra, ura eta berogailua ez daude prezioaren barnean.

Bulegoa alokatzeko lehentasuna izango dute Imotzen erroldatutak daudenek, artisaua edota enpresa txiki baten jabea direnek, euskaraz dakitenek eta zaratatsua ez den ekintza bat egiten dutenek. Eskakizuna egiteko, eskari-orria bete behar da udaletxean eta beharrezko dokumentazioa eraman.



▲ Erakusketak egiteko prestatua dago ganbara ezkerrean eta bulegoetako bat eskuinean.



Zaintza lanen balorearen gaineko sentsibilizazio kanpaina
Campaña de sensibilización sobre el valor de los trabajos de cuidado



Imotzen Behingoz ekimena anotolatu zuten, euskara ofiziala Nafarroa osoan izan dadin eskatzeko

Jende ugari bildu zen Udaletxearen parean egin zuten argazkian, Etxalekun.



Imozko Udaletxean bildu ziren, Aritz gorostiagak bidalia ▲

Urrian hasiko da Gartzarongo Pilota Goxua Txapelketa

Abenduaren bukaeraraino luzatuko da, eta izena emateko epea urriaren 14an amaituko da.

Mende laurdena bete du Basaburuko eta Imozko kirol batzordeak antolatzen duen txapelketa honek, mistoan aritzen ez direnendako edota pilota utzi zu tenendako zuzenduta dagoena. Lau mailatan jokatuko da, nesken maila alde batetik, eta bestetik, hiru maila ezberdinetan mutilak.

Gogoratu, izena emateko epea urriaren 14an bukatzen dela.

Pilota goxua Txapelketa 2018

Basaburua eta Imozko Kirol batzordeak antolatuta

LAU MAILAN JOKATUKO DA

Neskak:

Irekia (Maila bakarra)



Mutilak:

1. Maila: Edonorentzako irekia.

2. Maila: Edonorentzako irekia.

3. Maila: Basaburua eta Imozko pelotazale guztiontzako irekia.

Epea apuntatzeko: urriak 14 baino lehen.

Nesken partiduak larunbata goizean jokatuko dira 11:00tan hasita.

Mutileen partiduak ostirala gauetan, 19:00tatik aurrera eta larunbata arratsaldetan 17:00tatik aurrera jokatuko dira Gartzarongo Frontoian.

Bikote bakoitzari egutegia emango diogu txapelketa hasi baino lehen.

Telefonoak apuntatzeko:

659 443 664 Zepelo

680 84 329 Zapa

Anima zaitetze pilota gure kirola da!!

Kirolak

Madril-Lisboa mendi bizikletaz egin du Haritz Beloki Astitz imoztarrak

Powerede Non Stop deituriko txapelketan parte hartu du Haritz Beloki Astitz imoztarrak, hiru lagunekin batera. Madrildik Lisboa dagoen bidea osatu behar izan dute, 770 kilometro, gelditu gabe. Horretarako, txandak egin dituzte, 55 ordu baino gutxiagotan egin behar den bidea betetzeko. Laukoteen kategorian, 25 lehenengoen artean iritsi dira helmugara, 100 talderen artean, 21. postuan hain zuzen ere. Lasterketa bakarka, bikotea, hiruko taldeetan edo, Beloki bezala, lau kideko taldeetan egiten ahal da, bakoitza kategorian ezberdinetan. Pozik egongo da laukote hau, euren kategorian egindako markarekin.



Haritz Beloki Astitz bidea hartzeko prest ▲

Bitartean, mistoko XXIV. txapelketak jarraitzen du

Gartzarongo XXXIV. esku-pilota txapelketaren azken fasean murgiltzen hasi gara eta dagoeneko ezagutzen ditugu final aurrekoa jokatuko duten nesken izenak. Azaroaren lehendabiziko asteburuan jokatuko dira final aurrekoak, nesken kategorian. 3an, arratsaldeko 16:00etan, Leire Garai eta Uxue Osés arituko dira Nora Mendizabal eta Naroa Agirreren aurka. Hurrengo egunean, azaroaren 4an, goizeko 10:00etan Arrate Bergara eta Alba Martinez, Maddi Unanue eta Olatz Ruiz de Larramendirekin lehiatuko dira.



Leire Garai aurreko finalerako klasifikatua ▲



iritzia



Maider Galardi F. Agirre

Donostiako 66. Zinemaldia.

VOYEURENEA

Komediak, fikzioa eta gure tragediak

2018ko irailak 23

Ostiral goiza. Zinemaldiko lehen filma, El amor menos esperado. Bikote heterosexual eta monogamo baten gorabeherak kontatzen ditu pelikula, Ricardo Darinek eta Mercedes Morane antzeztuta. Sarri lehertu da barrez publikoa. Kazetari honi grazia gutxi. Maitasun erromantikoa, iruditeria hegemonikoa, estereotipo asko eta funts sozialik ez, apenas.

Ostiral arratsaldea. Elkarrizketa Leon Siminiani zuzendariarekin. Apuntes para una película de atracos filma aurkeztera etorri da Donostiara. Dokumentalean kontatzen du lapur batekin izan duen harremana, eta egindako delituen atzeko pertsona hori ezagutarazten du: «Lapurrete buruzko film onenak lapurrearen atzekoa erakusten du». Badu esku artean proiektu berri bat ere, Alcazarko kasua-ri buruzkoa. «Alde guztiekin» hitz egitea interesgarria dela dio, eta ulertu baino gehiago, ikasi egin behar dela jende horrek buruan zer duen. Kazetari honi kezka handia eragin dio erantzunak.

Larunbat arratsaldea. Sartu da Danny DeVito prentsa aretora. Jende lepo dago gela, munduko komikorik ezagunenetarikoa batek jasobaitu aurtengo Zinemaldiko Donostia saria. Eseri da mahaian, eta ez du lortu itzulpenerako aurikularra jartzea. Han hurbildu zaio azafata, eta segituan bota du aktoreak prentsaurrekoko lehen perla: «Neuk bakarrik ez nuen lortuko, andre eder batek egitea beti da hobe». Barreak aretoan, eta kazetari honi batere grazia ez.

Oscarretatik hasi eta Canneseko zinema jaialdira arte, aurtengo gala beltzen urtea izan da alfonbra gorrietan. Hainbat aktore emakume salatu dute sexu abusua jasan dituztela urte hauetan guztietan Hollywoodeko zinema ekoizlerik ezagunen eskutik. Espainian ere Goya sariak baliatu zituzten emakume ekoizleek beren lana aintzatetsia izan zedin aldarrikatzeko, eta, gurean, Jose Luis Rebordinosen esan du Zinemaldian kristalezko sabaiaren aurka borrokatzen direla.

Aldarrikapenak aldarrikapen, ordea, Darin esku zabalik jaso dute Donostian, nahiz eta Valeria Bertuccelli aktoreak salatu zuen «gehiegikeriak» egin zizkiola Escenas de la vida conyugal obra antzezten ari zirela. Siminiani filmatu egingo du bere dokumentala, nahiz eta jakin badakigun Alcazarko kasua mugarri izan zela neska gazteei beldurraren paradigma ezartzeko, eta hemengo kazetari honek ez dio DeVitori kargu hartu prentsaurrekoan. Are, datozen egunetarako ez du emakume zuzendari bakarrarekin elkarrizketarik lotu. Horra gure tragediak.

“Berria”

Badugu zozketarik aurtengo? Eta zertarako?

Argerkari digitala atera dugu aurtengo udan. Pulunpe ere hobetu dugu, maketazio berri bat eman diogu. Eta beste hobekuntza batzuk sartzekotan gara: eduki interesagarriagoak erdietsi, euskararen kalitatea hobetu...

Guzi hau aurrera eramateko, aurrekontua handitu beharra izan dugu. Ez dago besterik, musu truke egiten den lanaz gain, soldatapeko langileak ere behar ditugu eta; eta zer esan inprimatze gastuez? Eta nonbaitik atera behar, jakina!

Aurtengo ere baietz dirudi. Bai, gure **Zozketa** ederra egin beharko dugu.

Aupa zuek eta laster artio!



Autobus zerbitzuan ordutegi aldaketak



2018ko irailaren 18tik aurrera autobus zerbitzuaren honako ordutegi hauek aldatuko direla jakinarazten da.

9:05

ean ateratzen den autobusa

15:25

ean ateratzen den autobusa

19:40

ean ateratzen den autobusa



9:10


ean aterako da

15:30

ean aterako da

19:35

ean aterako da



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMA ATEA - PUERTA DE ULZAMA

Etxean eginiko eguneroko menua
Hamaiketakoak - Parking zabala
Pizzak, Hanburbesak.... Oilaskoen eta
paellen eskaerak egiteko aukera
EGUNERO IREKITA



*eta.... Ostegunero
sak aldera Pintxo Pote*

Denetarik eta prezio hoberenean



HIRI BATEKO SUPERMERKATU TXIKI
BAT LANDA INGURUNE BATEAN

Fruta eta Barazkiak - Haragi freskoa
Produktu ekologikoak eta bertakoak

EGUNERO IREKITA
9,00etatik 20,00etara

Gulina-Aroztegi errepidea 12.8km-an - Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA



Babesturiko Jendarte Lana proiektua

Aurten lan munduan sartzeko edota lana mantentzeko zailtasunak izan dituzten 7 pertsonak parte hartu dute, eta apirilaren 16tik hainbat eraikin publiko zaharberritu dituzte.

Maite Urroz Teiletxea, Ultzamaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Lan Babestuko hezitzailea



▲ Xinbili Xanbala haur eskolako margoketa lanetan.



Proiektu hau, Nafarroako Gobernuak diru laguntza eta Ultzamaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen diru aportazio garrantzitsuari esker garatzen da. Proiektu honen baitan, lan munduan sartzeko edo eta lana mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatu egiten dira.

Proiektua, 3 zutabe hauetan finkatzen da.

Alde batetik, parte hartzaileei lan kontratu bat eskaintzen zaie. Mankomunitatea osatzen duten herrietan lanak egiten dituzte; herrietako karrikak, lorategiak, pistak, eraikin eta instalazio publikoetan mantenimenduan, kultur, kirol eta berdintasun arloko ekintzetan lagundu e.a.

Beste aldetik, formakuntza eskaintzen zaie. Lanbide desberdinak bete ahal izateko ikastaroak eta pertsonalki garatu ahal izatekoak.

Proiektuan parte hartzen dutenekin egiten den esku hartzea izango zen 3. zutabea. Laguntza-akonpainamendu honen bitartez dituzten gabezia-zailtasun pertsonalei aurre egitea da helburua.

Babesturiko Jendarte Lanaren azken helburua Proiektuan parte hartzen dutenek lan merkatuan lanpostu bat lortzea da.

Aurten, apirilaren 16an hasi ziren lanean lehenengo 2 partehartzaileak. Denetara, 7 pertsonak parte hartu dute eta momentuan 5 lagun daude kontratatutik; 3 emakume eta 2 gizon.

Oraingoan, aipamen berezia egin nahi dugu lan monitorearen figurari. Azkeneko 2 urteetan bezala, aurten ere lan monitore bat hilabete batez kontratatu ahal izan da.

2016an, Oskotzeko Joseba Gartzaron Zudairerekin Eritzeko xahutegia zaharberritu zen eta iaz, Iñigo Arraiza Iriarterekin Igoako Itturri Zaharra.

ektuarekin, Ultzamaldea hobetuz

Aurten, Latasako (Imotz) Iker Ozkoidi García izan da monitorea.

Oraingo honetan ere, aurreko bi urteetan bezala, esperientzia oso positiboa izan da. Monitorearekin batera, lanak egiten dituzte eta aldi berean, lan horiek egin ahal izateko teknikak ikasi.

Aipatzekoa da lan hauetaz herrietatik egiten duten balorazio positiboa; eraikin publikoak, historikoak kasu batzuetan, mantentzen laguntzen baita. Haien partehartzea ere garrantzitsua da. Lan Babestukoek euren lana bukatu eta ondoren, auzolanean herrikoek eraikinaren inguruan ere lan egiten segitu baitute; Eritze eta Igoaren kasuan adibidez.

Aurten egindako lanak hauek dira:

Anuen, kirol aretoa, Udaletxeko Areto Nagusia eta zenbait bulego margotu dira. Olaguen, zubiko baranda margotu da.

Ultzaman, Xinbili Xanbala haur eskolako patioko tresnak moldatu eta margotu dira. Gizarte Etxeko eszenatokian ere moldaketa batzuk egin eta margotu da.

Etulainen, itturria – xahutegiaren ingurua garbitu da eta paretak errebokatu.

Ikerrekin ere pintura ikastaroa egin dute lan babestukoek. Pintura ikastaroaren edukietako bat, partehartzaileak airless pistolaren erabileran trebatzea izan da. Teknika hau erabiliz, Gerendiango eta Eritzeko hilerriak margotu dira.



▲ Gerendiango hilerria (aurretik eta ondotik)



▲ Eritzeko hilerria (aurretik eta ondotik)



▲ Igoako xahutegia (aurretik eta ondotik)



▲ Eritzeko xahutegia (aurretik eta ondotik)





Esan Erranek programa informatiko berria erabiliko du

Duela bi urte garatu zuen Ondarruko Radixu Irratiko Aritz Oleak, eta orain hobetzen ari da, antzeman dituen akatsak zuzentzeko. Hala ere, orokorrean oso ongi dabilela dio eta horregatik eskaini diote Arrosa Sareko gainontzeko irratiei, horien artean Esan Erran irratia. Radixu Irratiko programa hau software librea da, doanekoa, beraz, eta irratia libreen helburuarekin bat eginda, nahi duenak askatasunaz erabiltzeko sortua da. Hemendik gutxira argitaratuko du azken bertsioa, eta asmoa da Esan Erranek ere erabiltzea, aukera paregabea programazioa berritzeko.

Baliabide gutxi dituzten hainbat irratia txiki daude Arrosa Sarean, eta uste dut irratia hauendako nahiko egokia dela. Hori da lortu nahi den helburua; irratia txikiendako oztoporik ez egotea

Ekitaldi ugari antolatzen ditu Radixu Irratiak. Hemen, 23.urteurrena ospatzeko kontzertua, duela 5 urte.



1. Zergatik erabaki zenuen automatizazio software bat sortzea eta arrosa sareari eskaintzea?

Radixu Irratian interneterako jauzia ematen hasi ginenean, beste irratiek erabiltzen zituzten aukerak probatzen hasi ginen, eta konturatu ginen gustukoen genituen soluzioak Microsoft Windowsen ingurunerako eginda zeudela. Doakoak izan arren, mugatuta zeuden eta ezin zen gure gustura aldatu. Irratietan gauza desberdin asko egiten dira, eta moldaketa horiek egitea ezinbestekoa ikusten genuen gure beharrianak betetzeko. Hortik sortu zen gaur egun dugun automatizazio softwarea, eta ikusi genuenean ondo zebilela, beste irratiei eskaintzea aukera ona zela iruditu zitzaigun.

2. Urteak daramatzazue Radixun zuen softwarearekin, zergatik uste duzu garrantzitsua dela software libre eta propioa izatea?

Irrati libreetan loturak izatea ez dugu oso gustokoa; menpekotasunak alde batera uzten saiatzen gara. Baina informatika munduan, askotan, erraz edo ezaguna den horretara jotzen dugu, eta ahaztu egiten zaigu loturak sortzen ari garela sistema edo software pribatu batekin. Hortaz, software librearen bidea jarraitu genuen, baina ez genuen aurkitu guk nahi genuena egiten zuen softwarerik, eta aurkitu genituen interesgarrienak zaharkituta zeuden. Hor hasi zen gure softwarearen garapena. Uste dut irratia libreek software librearekiko apustu bat egin behar dutela, propioa izan edo ez, sistema pribatuak, ahal den heinean, alde batera utziz.

3. Arrosa sareko jardunaldietan aurkeztu zenuen, nolako harrera izan zuen?

Nik esango nuke jendeak gustura hartu zuela. Argi dago oraindik softwarearen lehenengo bertsioan gaudela eta ez dituela irratia guztien beharrianak beteko; hala ere, denon laguntzaz joango gara hobetzen, jendeak nahi baldin badu behintzat. Eta, noski, garapenean esku bat botatzeko prest daudenak ere pozik hartuko dira.

4. Zertan laguntzen ditu honek arrosa sareko irratia?

Baliabide gutxi dituzten hainbat irratia txiki daude Arrosa Sarean, eta uste dut irratia hauendako nahiko egokia dela. Hori da lortu nahi den helburua, irratia txikiendako oztoporik ez egotea, eta ordainpeko software baten funtzio berberak lortzea, edo gehiago! Eta software honek, agian, denbora batera, irratien arteko komunikazioa eta irratsaioen trukaketa bateratzea ekar dezake. Denon esku dago.

5. Zer moduz dago Radixu? Zer eragin du herrian?

Guk uste dugu jendea gustura dagoela Radixurekin, orokorrean. Egiten ditugun ekitaldietara (kontzertuak, Zapato Azule, ...) jendea animatzen da eta, gainera, nahikoa irratsaio ditugu martxan; beterranoez gain, ia pare bat irratsaio berri ere izan genituen. Dena dela, audientzien daturik ez dugu; beraz, ez dakigu zehazki zenbatek entzuten gaituzten.



Bizilagunak antolatu dira Gerendiainen, erabilitako olio jasotzeko

Iruñean, E.Leclerc eta Eroski hipermerkatuetan dago olio erabilia jasotzeko 'puntu berdea' deiturikoa. Baina herrietan ez dago antzeko sistemarik, ezta erakunde publikoetatik ipintzeko asmorik ere. Horregatik, Gerendiainen, bizilagunak antolatu dira olio hori jasotzeko, kontzejuak bultzatuta. Elena Tornerok, Gerendiango Kontzejuko idazkariak, erantzuna ikaragarria izan dela azpimarratzen du, eta gainontzeko herriak animatu nahi ditu horrelako zerbitu martxan jartzeko.

Nola sortu zen ideia?

Kontzejuaren eskutik jaio zen. Kide batzuek etxean olio birziklatzen genuen, eta uste genuen ongi legokeela biztanle guztiei aukera ematea, eta guztion artean kudeatzea. Orduan, uztailaren 7an jarri genituen ontziak eta herria biltzen duen txatean esan genuen. Erantzuna ikaragarria izan zen, lehenengo egunetik hasi ziren bidoiak betetzen.

Baina handik gutxira lapurtu egin zituzten...

Bai, uztailaren 16rako konturatu ginen bidoiak eraman zituztela. Baina berriro jarri genuen guztia martxan. Kaxoi handiago bat egin genuen, pisu handiagokoa, beste bi bidoirekin, eta uztailaren 24an ipini genuen berriro.

Nola antolatzen zarete?

Bada, biztanle guztien artean kudeatzen dugu. Esate baterako, oraintxe, txat taldearen kide batek esan du heldu den asteen Iruñera joan behar duela, eta berak eramango duela olio hango puntu berdera. Gero bidoia bere lekura itzuliko du eta, bi ontzi ditugunez, badaukagu bitartean olio non bota. Eta hori da helburua, guztion artean moldatzea.

Lan hau ez al zuen Gobernuak bete behar?

Proiektuarekin hasi baino lehen Mankomunitatera deitu nuen, herrietan olio birziklatzeko punturen bat jartzeko asmorik ba al zegoen galdetzeko. Ez zutela halakorik aurreikusten esan zidaten, olio jasotzeko eremuak Iruñean bazeudela, Eroskin eta E.Leclerc-en, han ematen zela zerbitzu hori, eta ez zegoela herrietan horrelako ezer jartzeko asmorik.

Orduan, zuen artean antolatzea erabaki zenuten?

Enpresa pribatu baten bitartez egitea ere pentsatu genuen, baina ez ginen akordio batera iritsi, oso garestiaz elako. Ostalaritzan aritzen direnak, adibidez, derrigorrez birziklatu behar dute olio, eta haiei bai merkatzen diete zerbitzua. Baina, bestela, oso garestia da, metalezko edukiontzi handi bat jartzen dutelako, non kristalezko ontzia botatzen duzun zuzenean. Ez genuen aukera hori gustuko, ontzia osorik bota behar duzulako eta gehienetan berriz erabiltzen ahal duzun kristalezko ontzia da, aldioro berri bat erabiltzean ez diozu jasagarritasunari faborerik egiten, eta berdinean gaude...

Eta zenbat biztanle parte hartzen duzue?

Erantzuna, esan bezala, ikaragarria izan da. Txatean koordinatzen gara eta bertan

59 gaude. Bestela 100 bat pertsona gaude errolatutak, baina asko zahar-etxeak dira. Hara joan ginen proiektuan parte hartu nahi zuten galdetzeraz, baina dagoeneko antzeko zerbitu egiten zuten. Olio birziklatu eta langileek eramaten dute Iruñera. Bion artean elkarlanean egitea ere pentsatzen ari gara. Orain gainontzeko herrietara eta bailaretara zabaltzea gustatuko litzaiguke, kostea oso baxua da, bidoiak eta jardinera 50 euro izan ziren gehienez, eta garrantzitsua ikusten dugu ingurumenaren zaintzaz hausnartzea.

Jendea pozik, orduan?

Bai, askok eskertzen dute aldioro Iruñera joan beharrik ez izatea. Beste askok ziur aski ez zuten birziklatuko orain arte. Honekin asko errazten duzu birziklatzea, aukera hori ikusten dute, herrian bertan botatzea besterik ez dutelako, asko animatuko ziren.




Markek, Elenaren semeak, olio botatzen du. Elenari lotsa ematen dio argazkian agertzea.

Adiskide sua

Makitan desagertu zen urritzarraz


Orain baino lehen, Pulunpen, makietako denboran, hau da 1944ko urria-azaroan hil zituzten hiru herritarren berri eman dugu. Olagueko kuartel aurrean Juan Larrea hil zuten guardia zibilek urriaren 7an; Ultzamako mendietan guardia zibilek urriaren ez dakigun zein egunetan tiroz zauritu Jose Etxenike Barberena, 14 urteko arraitarra, eta azaroaren 26an hil zena; eta azkenik, Itsasoko Inazio Biurrarena, Burgiko mendietan, uste dugunez militarrek tirokatu eta egun batzuk berenduago Iruñean hil zena, urriaren 28an hain zuzen. Su adiskideak hilak izan direla esan dugu (1) Gaurkoan Imotz aldeko kasu bat dakargu, Miguel Ganboa Astitz urritzarrena.

Miguel Ganboaren heriotza



▲ Miguelen aitari eman zioten brigada paga, semearen desagertzeagatik (1945ko maiatza)

Heriotza agiriaren fotokopia.
Hiltzat 1947. urtean eman zuten.



1944ko udazkena zen, urriaren 11a. Makiak sartu berri-berriak ziren Oskako (Huesca) eta Nafarroako mendietatik, Francoren kontra borrokatzeko asmoz. Maki talde bat Orreaga aldetik sartu, Erro eta

Esteribar gurutzatu eta aurrera zetorren. Atetz aldean borrokaren bat izan zuten eta barratu ziren han eta hemen.

Etxalekuko mendian, **Ameztin**, nora jo jakin gabe, ihesi, ortzika zebiltzan, eta jendeak eta zibilak ere jakin zuten berehala. Eta batetik bestera, guardia zibilez eta soldaduz bete ziren Urritza eta Latasa.

Orduan gertatu zen Miguel Ganboa Astitz, Urritzako mutil gaztearen desagertzea.

Honetaz guztiaz zerbait jakin nahiez, Urritzako **Uztargilearen** etxean bizi den Benita Etxarri Aldatzengana jo dugu, eta honek hala dio:

Hauek (militarrek) bazekiten makiak non zeuden baina aurrera jo baino lehen, zerbait gehiago jakin nahi, tokia ezagutzen ez zutela eta herritarrak bidali zituzten.

Badakizu, orduan obligarazi egiten zuten.

Uztargileen etxeko Martin Beloki Arregi (gero nire koinatua izanen zena) eta Bentazarreko edo Txurikaingo Miguel Ganboa Astitz bota zituzten aurrera, mendia mia zezaten ea zerbait ikusi edo sumatzen zuten.

Errotaraino elkarrekin joan omen ziren eta han herritik urrutizirela eta, Martinek esan omen zion Migueli.

- Hemen ez zegok deus. Aski diagu, itzuli egin behar diagu.

Eta Miguelek:

- Lasai, nik segitu eginen diat Etxaleku aldera, ea zerbait ikusten dudan.



Eta Miguelek aurrera segitu zuen, eta hartaz ez zen gehiago jakin.

Eta herritarrak ez al ziren bila atera?

Geroago, egun batzuetara ibili ziren herritarrak ea arrastoren bat bilatzen ote zuten, baina hila baldin bazen ..., badakizu, hil guziak bildu zituztela (Militarrek hil zituzten makiak bildu eta denak batean lurperatu zituztela esan nahi du Benitak)

Urritzako Javier Goñi Belokiri ere gauza honetaz galdetu genion eta hona nola kontatzen duen:

Gerran ibilitako mutilak obligarazten zituzten patruilak egitera, makiak zebiltzalako. Miguel Ganboa eta Martin Belokiri agindu, eta joan omen ziren mendira ea zerbait ikusten ote zuten.



Miguel Gamboa soldaduraren fitxa

Etxetxuriko presaraino joan omen ziren (**Errotaren** ondoan) eta hemen Martin Belokik atzera egin zuen, herrira itzuli zen.

Uso denbora omen zen eta Miguelek usotarako afizioa izaki eta aurrera egin omen zuen, ea zerbait ikusten zuen.

Biharamunean herriko mutilak ibili omen ziren; eta ez jantzi eta ez deus, arrastorik ere ez.

Zerbait gehiago jakin nahi eta, Etxalekun desagertze honetaz aspaldian baititugu entzunak, gehienik jakin dezakeenarengana

jo dugu, **Zapatiñeneko** Juaniko Erbitirengana, eta hona zer kontatu digun:

Guardazibillek, biak ez atrebitzen oiania joatia, ta harrei esan duikai, ta hore joan ikustia, bigiletzia eta...

Bai, bestiak'e (makiak) erne eoki ta, hore sasoiko mutille izatiakin -hemen, pasteko biar baizuten jende fuertia, gatzia- ta beakin geldiazi. Eta gio izandu ziten atakia, beittiko oian hortan.

Batzuk errenditu ziren eta Juanikok dio:

"bat bazela, -eskuk goatzen ben'tzittin- entregatu nahi zuna, erti'artan duikai, Mikeltxeneko gaztañetako hartan. Eta soldaduk -eskarmenituk ez zuten soldaduk duikai- aboka jarri ziten, tietu ta erreka zintzur hartan eta fuera!"

Dirudienez, bidearen azpiko aldean lurperatu zuten edo zituzten, bi ote ziren aditu baitugu askotan.



Txurdan

Hitzak:

(1) Su adiskidea esan dugu, hemengo jendea Francoren aldekoa baitzen. Hala ere, Jose Etxenikeren aita, Pedro Etxenike Zenotz, gerrakoan ihesi zebilen jende pasan ibili zela eta atxilotua izan zen. Beraz, familia hau Francoren aldekoa ez zela garbi dago.

Ortzika: ezkutuka, gordeka (hemengoa ere bada hitz hau)

Erne egoki, lasai ibilki, zuek ere joaki: gazteek esan molde hau ikasi beharko lukete.

Perratzailea edo ferratzailea (batuan): herrero.

Ugaldea: ibaia (hitz hau Nafarroakoa da)

Opatu: aurkitu (hemengo hitza da)

Arotza: Nafarroan eta Iparralde guzian, herrero da.

Oinordekoa: herederor.

Sortetxea: jaiotetxea



OHARRA:

Ian osoa ikusi nahi duenak, interneten du: **amezti@eus**



Truxikaingo benta: Ganboatzena izandakoa. Erdibituta saldu zen, ederki antzematen den bezala.

Miguel Ganboa Astitz nor zen

Miguel Ganboa Astitz, Luciano Ganboa Andueza, Lakuntxe eta Juana Astitz Golaratzen semea zen. Luciano, Urritzako Txurikain bentakoa zen eta Juana berriz, Golarazko Maiatzenekoa. Miguelek, desagertu zenean, 34 urte zituen, gerran ibilia, eta ofizioz aita bezala, perratzailea zen. Hiru senideetan arotz eta perratzaile hoberena omen zen. Udabeko Errotako Julia Biurarenarekin ere egon ginen bere garaian, -Urritzako bentetatik hurbilekoa eta kontuak jakiteko tokia ezin aproposagoa- eta hara zer esan zigun Miguelez:

Oso mutil bizkorra zen, oso bizkorra. Negu bizi-bizian ere, egunero ugaldean sartzen omen zen.

Eta gehiago dena, hona zer gehitu duen honen desagertzeaz:

Bai, Ameztin hil ote zen barratu zen. Burrumba handia ibili zen. Gero, zarrantzar bat errotatik pasatu zenean, esan omen zuen ez zitekeela, han Zarrantzen garbi-garbi ikusi zutela makiekin eta.

Zenbateko sinesgarritasuna eman honi? Etxalekuko askori entzun izan diet Ameztin lurperatutakoen artean behar duela izan. Eta hala izanen da, baina, Juaniko Erbitik kontatzen duen bezala baldin bada, lurperatutako tokia opatzea ezinezkoa iruditzen zait. Aztarna guziak galdu dira; gehiago oraindik, pista bat egin ondoren, lekua ezezaguna bihurtu zaigu zoritxarrez.



Basurde gainpopulazioa kalteak eragiten ari da nekazaritzan

San Miguel de Aralar kooperatiban diotenez galerak izan dituzte

Kooperatibako kidea eta ehiztaria den Xabier Azpirozen arabera, %6ko galerak izan dituzte aurten, haren ustez basurdeen gainpopulazioak eraginda, zati handi batean. Betiko arazoa dela azaltzen du, baina azkeneko bost urteetan larriagotu egin dena, “ereiteko erabiltzen ditugun lursail guztiak erreserba direla da arazo nagusia. Alea hazi baino lehen basurdeek guztia kentzen dute”.

Kooperatibako kidea eta ehiztaria den Xabier Azpirozen arabera, %6ko galerak izan dituzte aurten, haren ustez basurdeen gainpopulazioak eraginda, zati handi batean. Betiko arazoa dela azaltzen du, baina azkeneko bost urteetan larriagotu egin dena, “ereiteko erabiltzen ditugun lursail guztiak erreserba direla da arazo nagusia. Alea hazi baino lehen basurdeek guztia kentzen dute”.

Batzuetan, arazoa larriagotzen denean, uxaldi bereziak egiteko baimenak ematen dira erreserba eremuetan, baina baldintza oso berezietan eta oso luzeak diren tramite askoren ondoren, kexu da Azpiroz: “Ingurumen sailera deitu behar dugu eta gero guk ordaindu behar dugun basozain pribatu bat etorri behar da, egoera aztertzeko. Egun asko pasatzen dira eta ondoren ematen dizute baimena, baina egun gutxi eta zehatzetarako bakarrik”.

Aurten, adibidez, denboraldia bi aste lehenago hasteko baimena izan dute, irailaren lehena hasi ordez, abuztuaren 15ean abiatu da, “baina bero handia egin du, horrela oso arriskutsua da txakurrekin ateratzea”. Denboraldia martxora arte irauten du, baina bukaeran ezin da luzatu, “zergatik eman dizkigute egun gehiago abuztuan, martxotik apirilera luzatu ordez? Bada, udaberrian basurdeak umea egiteko daudelako, eta, noski, ezin dira hil”.

Dena delakoa, urte txarra izan dute kooperatiban. Basurdeen arazoari, eguraldi kaxkarra eta bestelakoak batu zaizkio: “Ez gaituzte soilik basurdeek kaltetu. Aurten euri asko egin du, eta horrek artoa haztea ekidin du, berriro erein behar izan dugu. Aldi berean,

urak izurriteen tratamenduak indarrak gabe utzi ditu. Urte bereziki txarra izan dugu”. Guzti honen ondorioz artoa ereiteari uztea ez du baztertzen Azpirozek, aztertu beharrekoa dela dio, errentagarritasuna ez dagoelako argi. “Muskizen dagoeneko bi zelai kendu genituen pasa den urtean, eta aurten geratzen zaizkigun beste biak kenduko ditugu. Ehiza-barrutitik aterazen Muskitz, eta bertan biltzen dira basurde gehienak”.

Konponbidez galdetuta, asmatzen zaila dela dio, baina basurde gehiago hiltzea besterik ez zaio bururatzeko, “batzuk sare elektrikoarekin mugatzen dituzte zelaia, baina hori txikiak dituztena kegiten ahal dute bakarrik, besteontzat garestiegia da. Basurdeentzat hau paradisua da, artoa, ura eta mendia duten bitartean hemen geratuko dira. Eta arazoa ez da artoarekin bakarrik, artoa kendu eta belarrarekin hasten garenean arazo bera daukagu”.



Basurde emea, bere kumeekin. ▲
Gemawalak eginda, flickr-en argitaratua



Iruñeko bar batean

belarria prest?

Eguerdian gelditu naiz lagun batekin gure etxearen hurbileko barrean. Laguna gure alderdikoa dut, Ultzamaldekkoa, baina ez daki euskaraz.

Sartu naiz eta ate hurbilean topatu dut taburete baten gainean jarrita, aldamenear, zutik, lagun bat duela.

Ni, hurbildu eta beti egiten dudana bezala, euskaraz agurtu dut, lehen hitza euskaraz egiteko oihututa izan:

- Inazio, zer modu?

- Ongi, eta zu?

Eta aldamenekoak, alkoholiko aurpegi duenak:

- Bai!

- ???

- Yo no sé euskara, solo BAI.

- Yo creo que lo dicho hasta aquí todos los navarros tendrían que saber. Lo elemental! -nik.

- Pues nosotros teníamos en el trabajo uno al que llamábamos "Zermodu". Era del Baztan y como se dirigía a la gente así, pues le llamábamos "Zermodu" -bere aldetik nire hitzei kasu zipitzik ere egin gabe.

- Pues eso es lo que le he dicho a Inazio.

- Ah, ah!!!

Ez zen ohartu ere egin zekien apurrarekin gure arteko diosala bere jakinduriaren mailan zegoela. Aski jakinki eta aprobetxatzeko aukerarik ez zuen izan gijajoak!! Belarria ez zuen prest.

Hori zaigu gertatzen aunitzetan, dakiguna ere ez dugula aprobetxatzen.



Txurdan



Dakizun euskara, asko edo gutxi, aprobetxatu. Hitz egin, ahal badezakezu; edo bestela, gutxienez, ulertzeko belarria prest izan.

Aho bizi edo **belarri prest**, izan zaitez aktiboa, eguneroko bizitzan atera probetxua euskarari. Atera etekina! Euskaraz denok irabaz dezakegu, esate baterako: lagunak, adiskideak, konplizeak, laguntzaileak... baita baita, dirua ere! Probetxua edo etekina kendu euskarari.

Izan zaitez euskalduna... eta ernea, irabazian atera zaitezke. Inaziok ere egun hartan ardo frexkoa atera zidan topa egiteko.

▲ Adiskide hauek, berriz, Jauntsarasko Apeztegi berriko ostatuan topatu nituen, Basaburuko Bernardo eta Inazio dira, mahaian jartzerakoan bostekoa elkarri ematen.

Hitzak

Belarri prest. Laster, abenduan, Euskaraldia deitu kanpaina egingen da. Kanpaina parte hartzen duten batzuei "belarri prest" deitzen diete, euskaraz zerbait ulertzen dutenei. Eta gainerakoei "aho bizi", euskaraz mintzatzeko prest direnei.

Etekina: irabazia.



Zartagina, frijitzeko tresna bakar

Herritarrak batzeko helburuarekin sortu zen Imozko Sukaldaritza Taldeak 2 urte bete ditu

Kezka baten baitan sortu zen Imozko sukaldaritza taldea: nahiz eta herri txikiez osatua dagoen, biztanleen arteko harremana ez zen nahikoa estu Udalaren ustez. Herritarrak batzeko helburu horrekin sortu zen, eta bi urte bete ditu. Telefonoko txatean talde bat egin dute, bat-batean sortzen baitira saioak eta topaketa bakoitzean hogeitak bat pertsona biltzea lortzen ahal dute. Produktuak Apeztegi berriko dendan erosten dituzte eta izugarri eskertu nahi diote Ernaizuko neskei, arruntak ez direnak lortzen saiatzen baitira. Aurtengo bigarren denboraldi honetan, gonbidatu ‘berezi’ ugari izan dituzte, gainera, bere sortzaileetako eta Imozko zinegotzia den Alfredo Alzueta Unzuak kontatu digunez. Datorren hirugarren urte honetarako pertsona nagusi gehiago lortu nahi dituzte, “ziur aski hobekien kuzinatzen dutenak dira, eta denbora libre gehiago izango dute!”.

“

Aniztasun handia izan dugu, zenbait jendek erakutsi ditu bere trebeziak eta horrela asko ikasten dugu. Polita da

”



Nola sortu zen taldea?

Imozko Udaleko garapen komisioko kideoi iruditzen zitzaigun ez direla ekintzak egiten herrietako biztanleen artean. Nahiz eta herri txikiak garen, ez daukagu harreman handirik jendearen artean. Orduan ideia horrekin sortu zen, Imozko herri ezberdinetako jendeak ekintza komun bat partekatze helburuarekin. Horregatik, aldi bakoitzean herri desberdin batean egiten dugu saioa.

Zenbat herritako biztanleak hartu dute parte?

Bada, egia esan, herri guztietako jendea etortzea lortu dugu. Behin Muskitzen egin genuen, beste batean Oskotzen, Goldaratzen ere egon gara, baita Erason ere... Modu horretan herri horietako bizilagunak ere animatzen dira parte hartzera. Erason, adibidez, Madali eta Zaparen bordan; Latasako Txani ere etorri zen, pizzak egitera, oso ongi egon zen. Goldaratzen, ordea, Josefinaren jatetxean arituginen.

Nola antolatzen dituzue topaketa hauek? Biltzen zaretenak sukaldean adituak zarete?

Sukaldean aritzen direnek erabakitzen dute zein izango den menua, non egingo duten, eta gutxi gorabehera zenbat pertsonendako izango den. Orduan aukera asko daude, prestatzera joan zaitezke, laguntzera edota ikastera. Aniztasun handia izan dugu, zenbait jendek erakutsi ditu bere

trebeziak eta horrela asko ikasten dugu. Polita da. Nik adibidez saioa baino lehen Goldarazko Joseba Ollorekin ensaiatzen dut, sukaldaria da eta horrek segurtasuna ematen dit. Antolatzea erraza da, gainera, prestatuko duenak proposamena egiten du eta jarraian Ernaizuko kooperatibakoekin koordinatzen gara, dendan produktuak prestatzen dizkigute eta Jauntsaratsa joaten gara haien bila. Berezi eskertu nahi diet Ernaizuko neskei haien laguntza, behar dugun zerbait ez baldin badaukate lortzen saiatzen dira beti, gainera.

Gainera, atzerriko gonbidatuak ere izan dituzue!

Hori da, Oskozko Meghan eta Iñigoren bitartez lortu ditugu. ‘WOOFER’ egiten dute, hau da, boluntarioak etortzen zaizkie kanpotik, baserrian laguntzeko. Eta horietako batzuk animatu ziren taldeko saioetan parte hartzera, eta izugarria izan zen. Behin Tailandiatik sukaldari bat etorri zen, eta beste batean New Yorken bizi zen Indiako neska bat. Benetan ikusgarria izan zen! Hemen kanpoko sukaldaritza askotan ez dugu ezagutzen, eta gainera badirudi batzuetan beldurra eta guzti ematen digula gauza ezberdinak probatzea, eta liluratu gintuzten! Jendeak oso gustukoa izan zuen, eta nik uste dut haiek ere oso gustura egon zirela.

Eta elkar ulertzeko gai izan zineten? Hizkuntzarengatik diot...

[barreak] Hemen arazoak ditugu



ingelesarekin, baina elkar ulertzea lortu genuen, oso gustura egon ginen guztiak. Tailandiako sukaldaria izan genuen egunean 20 bat pertsona bilduginen, eta hain izan zen berezia, egun horretako argazkia whatsapp taldeko profil irudi gisa mantentzen dugula.

Atzerriko sukaldaritzaz aparte, plater arrarorik izan al duzue?

Bada, Goldaratzen egon genuenean, Josefinaren jatetxean, ardikia prestatu zuen berak. Besteoi arraroa egiten zitzaigun, ohituta gaude bildotsa jatera, adibidez, baina ez ardia, eta antzekoak ziren! Goxogoxoa zegoen. Baina denetarik izan dugu, hemen Muskitzen Cristinak eta Begitxuk Mantxako sukaldaritzaz erakutsi zuten, esate baterako; Beramendiko Mikelek eta Laurak, bestalde, Nafarroako 'Rellenoa', Oskozen egon ginenean; Iñaki Beorlegik, Etxalekun bizi den pintore mexikar bat, plater mexikarrak ere prestatu ditu. Gauza ezberdinak eta bereziak egiten saiatzen gara, uste dut aurten lortu dugula.

“

Gauza ezberdinak eta bereziak egiten saiatzen gara, uste dut aurten lortu dugula

”

▲ Tailandiako sukaldaria, lanean buru-belarri



▲ Tailandiako sukaldaria izan zuten eguna. Hain izan zen berezia, whatsapp taldeko profil irudia gisa mantentzen dutela.



Kirolak, “Eremu” proiektua

Naturari lotutako turismoan beste pauso bat

Esteribarren sortu da “Eremua”, mendiko xendetan barna oinez, korrika zein bizikletaz aritzeko ibilbide sarea kudeatzeko zentroa. Baina gure mugetatik kanpo sortu den arren, aldizkari honetara ekarri nahi izan dugu, etorkizunean Anue eta Lanzko xendak barneratzeko asmoa izaten ahal dutelako.

Nafarroa Xtreme lasterketak hiru bailara hauek batu zituen duela ia hiru urte sortu zenean, eta etorkizunean Pirinioetako bi aldeetako ibilbideak batuta aritzeko proiektua sortzen ahal da. Momentuz, ordea, Esteribarren hamaika ibilbide markatuko dituzte eta Zubirin eta Eugin informazio zentro bana ezarri.

Baigorri inguruan ere badute antzeko proiektu bat, eta baita Aragoiko Benasquen ere. Beraz, ez da ezer berria, baina Nafarroan ez zegoen halakorik orain arte. Lantz, Anue, Erroibar, Baztan, Baigorri... eratzen duten lurraldea izan liteke naturarekin eta kirolarekin lotutako turismoa bultzatzeko eratuko luketen marka.

“Eremua”ri dagokionez, ibilbideak markatu eta informazio orokorra eskaintzeaz gain, besteak beste, ehiztariak non dauden



▲ Mendi martxako partaidea korrika

abisatuko dute, mendizaleak bertara igaro ez daitezen. Webgunea eta mugikorrerako aplikazio bat sortuko dituzte horretarako, eta Zubiri eta Eugiko zentroetan ere ematen dute informazio hori.

Anuen BTT (mendiko bizikleta) zentro bat ezarri zen duela urte batzuk, eta horrekin harremana egitea da “Eremua”ren asmoa, dimentsio ezberdina duten baina finean izaera bera duten bi proiektu baitira. Eta markatuta dauden xenda batzuk zein markatuta ez dauden ibilbideak erregistro orokor batera pasatzea. Esteribarren Nafarroa Xtreme sortu zenean, oso kontuan

hartzekoak zituztelako Anueko eta Lanzko parajeak, baina baita Ultzamakoak eta ingurukoak ere.

Beraz, proiektu handi bat izateko denbora beharko du, baina momentuz Esteribarren aurkeztu dute “Eremua” proiektua, beste bailarendako bidea irekitzen ahal duen proiektua hain zuzen ere. Mendizale, korrikalari, txirrindulari eta gure parajeak maitatzenendako markatutako ibilbideak.

▼ Mendi martxako partaideak korrikan Pirineotan





Ezpelaren Txanda

Bidasoa aldean hasi zen ezpelaren ihartzea, eta Bortzirietan nabarmena izan da azken urtean, baina gurera ere iritsi da

Bi zuhaitz espezie hauek ihartzen ari dira, beste hainbatekin gertatu bezala, ezpelari eta pinuari ere eraso egin diete. Lehenengoaren kasuan, larba mota bat da erasotzailea, eta bigarrenaren kausan, bi onddo.

Gero eta gehiago zabaltzen ari da fenomeno, Bidasoa aldean hasi zen ezpelaren ihartzea, eta Bortzirietan nabarmena izan da azken urtean, baina gurera ere iritsi da. Ez dago ezpeldi handirik Ultzama aldean, baina badira batzuk, eta jada ikusten ahal da ezpelaren sitsa deiturikoaren eragina.

Asiatik datorren *Cydalima perspectalis* sitsa da erruduna, Txina, Taiwan, Korea eta Japonian duena jatorria. Europan 2007an ikusi zen lehenengo aldiz, Alemanian, Txinako produktuen inportazio zentro batean. Beraz, pentsatzekoa da, Txinako landareren batean migratu zuela sitsaren larbak. Europa erdialde osoan zabaldua dago, baina gurera ere iritsi da.

Bortzirietan 2013an detektatu zen, Nafarroan ikusitako lehena zen, Gipuzkoatik edo Lapurditik igarota. Bidasoako bide berdean oso argi ikusten ahal zen haren eragina, baina Iruñerriko parke zenbaitetan ere ikusi da azkenaldian.

Sits espezie honen larbak ezpelaren hostoez elikatzen dira, eta batzuetan adarrak eta zurtoina bera ere jaten dute, eta ezpela osorik ihartzen da. Apirila inguruan ikusten ahal da eragina.

Zoritxarrez, ez dago aurre egiteko formularik. Ezinezkoa da neurririk ezartzea gaur egun dauden baliabide ekonomikoak baliatuz. Izan ere, zonalde itxi eta zailetan daude ezpelak gurean; hirietako parkeetan, ordea, produktu kimiko zenbaitekin aurre egiteko aukerak dituzte.

Aurreko Pulunpe aldizkarian, Erason izandako xenden egunaz aritu ginen, bertan botxa jokoan aritu zirela esanez. Ezpela, besteak beste, botxak egiteko erabiltzen da, eta beraz, Imotzen, botxa jokoa hasi bezain laster amaitu beharko da?

Pinua dugu mehatxatutako beste zuhaitz espezie bat. Nafarroan prozesionariak aritu gara askotan, zuhaitzari eta pertsona zein animaliei eragiten dien kalteaz. Izan ere prozesionariaren pozoiak pikagurea sortzen du pertsonengan eta hilgarria izaten ahal da zakurrendako edo antzeko animaliendako.

Oraingoan, ordea, onddoak dira pinuak erasotzen ari direnak. Gipuzkoan argi ikusten ahal da pinuen kolore marroia, udazkena iritsita, hosto galkorra duten zuhaitzak bailitza. Baina pinuaren hostoak ez dira erortzen, ezta marroi bihurtzen ere, eta hala daude pinudi gehienak. Bi onddo dira erasoan ari direnak, eta ezpelaren kasuan bezala, ez du ematen aurre egiteko neurri argirik dagoenik.

Gure basoak amaitzen ari al dira?



Galiziko parke batean ihartutako ezpelak ▲



▲ Ezpelari erasotzen dion larba



Matilda, kutxa tuntunaren aurka

MATILDA (ROALD DHAL), “KUTXA TUNTUNAREN” AURKA

Matilda, dudarik gabe, Roald Dhalen libururik ezagunenetarikoa bat da, Galeskoaren liburu ospetsuek zerrenda luzea osatzen badute ere: Charli eta txokolate lantegia, Gremlinak, James eta melokotoi erraldoia, Sorginak, Erraldoi on miragarria...

Ikusten dugun bezala, gainera, Dhalen lan asko pelikula bihurtu dituzte, arrakastatsuak gainera. Kasu, Matilda, Danny deVitoren film homonimoan (Danny deVitok berak Matildaren aita nazkagarria antzezten du pelikulan).

Matildak bost urte ditu eta familia friki batean bizi da, non kultura bakarra diruarena eta azalekotasunarena den. Hala ere, neskatoa irakurle amorratua da, irudimen eta adimen handikoa. Hori guztia, gutxi balitz, superboteak ditu, adibidez, telekinesia, hau da, adimenaren indarrak gauzak mugitzeko gaitasuna. Baina, Matildaren superboteerik handiena halako familia batean bizirautea da, eta bere nortasuna eta imajinazioa babestea: Matildaren gurasoek telebista ikustera behartzen dute, liburuak irakurri ordez; Matildaren etxean irakurketak ez du ezertarako balio, denboragaltzeko ez bada...

Horregatik guztiatik, hain zuzen ere, liburua puri-purian dagoela uste dut. Ni, bederen, Matilda bezala sentitzen naiz askotan gure gaurko gizartean, irudiak agintzen duen gizarte honetan, sare sozialen gizartean.

“Rollo bat da irakurtzea”, entzuten dut maiz nerabeen artean (eta segituan begiratzen dute bere whatsapp, mezu bat irakurtzeko edo idazteko); edota telebistan agertzen da Danny deVitoren bat inoiz ez duela liburu bat irakurri harro esanez. Lehen, behintzat, ezjakintasunak lotsarazten zuen jendea...

Eta hori da, nire ustez, Matildaren mezurik inportanteena: irakurketa superbote bat da, ezjakintasunaren kontra, azalekotasunaren kontra, diruaren diktaduraren kontra, kutxa tuntunaren kontra...



Patxi Irurzun
Ultzamako liburutxak

Zorionak
Pau!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com





Ihabengo Miltxonekoak: Diamantezko ezteiak

Pedro Munarritz Goñi eta Martina Larrion Arrarats Ihabengo *Miltxoneko* nagusia eta etxeoandrea ekarri ditugu orri hauetara. 1956ko otsailaren 9an ezkondu ziren, beraz, 2016an bete zituzten 60 urte eta etxean ospatu zituzten diamantezko ezteiak, familiako guziez inguratuak.

Pedro, Eguaratsen jaioa dugu, 1926ko apirilaren 25ean *Juantikonean*, eta Martina Larrion Arrarats, berriz, Ihabenen, *Miltxonean*, 1927ko martxoaren 23an. Pedro 1939an etorri zen Ihabena Larraintzartik, gerra bukatu zen urtean, *Etxeberria* edo *Tabernazarrea* bezala ezagunagoa dugun etxera, bere gurasoekin, oraindik mutikoa, 13 urtetan.

Ihabenen bizi luzea egin dute. Etxea erosi, goitik behera konpondu, familia eder bat hazi... eta lana errukirik gabe. Honako hauek dira seme-alabak: Jose Mari, Lourdes, Milagros, Beatriz eta Rita.

Nekazalgoan buru belarri ari izandakoa dugu Pedro, bai esne behiekin eta bai haragitako behiekin ere.

Nekazalgoaz at, Ibarreko lanetan ere hor ibili izan da Pedro, esate baterako, Alkate izan zen hiru urtez, 1976-1978, eta zinegotzi 11 urtez denetara, lehenik, 1970-1975 tartean, biak barne, eta ondoren 1979-1983ko agintaldian.

Senar emazteak *Miltxonean* bizi dira Jose Mari eta Beatriz, seme-alabekin.

Urte askoz, Martina eta Pedro! Eta izan ongi!



Txurdan



▲ *Miltxonea:*
Erabat konpondua ageria da,
baina Ihabengo etxe zaharrenetakoa da,
zaharrena ez bada.

◀ *Senar-emazteak, urrezko ezteietan,*
diamantezko ezteietakoa ez baitugu.



Hitzak

Esaldiak: lana errukirik gabe, buru belarri (hemen euskaraz poliki dakienak badakizki) Buruz ikasi behar dira esaldi hauek.

Ibarra: ballea

Zinegotzia: kontzejala.

Agintaldia: mandato.

2018ko uztaila

Gure alderdian, uztailean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

BASABURUA

Gartzaron

Aiert Oronoz Gaskue,
uztailaren 5ean jaio zen Elizaldean.
Gorka eta Olaiaren semea.

**Ongi etorri jaio berriari eta
zorianak bere gurasoei!**



Ezkontzak:

Martxoan, guk dakigula,
ez dugu ezkontzarik izan.

Heriotzak:

ANUE

Aritzu

Maria Angeles Ilarregi Gerendiain,
Joangoxeneko etxekoandrea, uztailaren
28an hil zen.

BASABURUA

Jauntsarats

Francisca Muguruza Lazkano,
Martzeloneko etxekoandrea, uztailaren
13an hil zen.



IMOTZ

Etxaleku

Vicenta Erbiti Aldaregia, Zapatifieneko
alaba, uztailaren 22an hil zen.



Goldaratz

Joxe Agustin Iturralde Olaetxea,
Gillenekoa nagusia, uztailaren 25ean hil
zen.



ULTZAMA

Eltzaburu

Jesus Maria Zabalo Ariztegi, Zabaloren
etxeko nagusia, uztailaren 14an hil zen.



“

*Gure oroimenean
izanen zarete*

”

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Nola parte hartu amezti.eus-en

“Eman izena” botoia sakatu eta sortu zure erabiltzailea

Erabiltzaileak bi eratakoak izan daitezke:

- 1. Pertsonak:** Edonork eman dezake izena eta amezti.eus webgunean edukia publikatu
- 2. Taldeak:** Eragile sozial, kultural, politiko, kirol talde, musika talde, elkarte gastronomiko, ostatu edo beste edozein kolektibo izan daiteke komunitatearen parte.

informazioa bidaltzeko beste bideak:

e-posta: info@amezti.eus

telefonoa, whatsapp eta telegram: 689033000 eta 619643126

Sare sozialen bidez: Facebook, twitter eta youtube

ALBISTEAK

ARGAZKIAK

BIDEOAK

AGENDA

IRITZIA

IRAGARKIAK

**ZORION
AGURRAK**

ESKELAK

